

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Roke Etxeberria Alkain*

*Andoain,  
Gipuzkoa  
(1928-2012)*

Aurkibidea



## Biografia



Andoaingo Etxeberrieta kalean jaio zen eta bertako eskolan ibili gerra hasi zen arte. Aita eta ama, biak andoaindarrak zituen eta bera ere bertan bizi izan da beti Urrietako emaztearekin ezkonduz geroztik ere. Lau senidetan gazteetan zen bera. Gerra hasi zenean, bi anai zaharrenek borrokara alde egin zuten "gorriekin" eta bera etxean gelditu zen. Bertso eta kanta zalea izan da beti Roke.

## Zintak

### AND-030

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-07-15
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon

## Pasarteak

### 1. Etxeberrieta auzoko giroa

- **Erref:** AND-030/002
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoaren arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

#### Laburpena:

<p>Andoaingo Etxeberrieta auzoan jaio zen. Han kotoi-fabrika zegoen, eta haren inguruan egin ziren etxeak. Lehen Etxeberrietan denak euskaldunak eta elkarren artean ezagunak ziren. Denek zuten ezizena: aitari <em>Felipe arrantzalea</em> esaten zioten.</p>

#### Transkripzioa

- Roke, nun jaiyo ziñan zu?
- Ni Andoaíñen, etxian e? Parterak izaten zian ordun ta parterakin etxian bertan, Etxeberrietan, Andoaíñen. Bai.
- Etxeberrietan?
- Oain zahar-zaharra dao, baiño Etxeberrietan, bai. Ordun Etxeberrieta,

"barrio de Etxeberrieta" esaten zan, oain'e bai. Bai.  
- Zer zan hoi, kanpoko jendiak eta indako etxiak, edo...?  
- Ez, barriyu hoi zan Andoaian zan algodonera, Subijana, ta han zortzirehun lagun ibilli izandu zian, Andoain guztiya ia han ibiltzen zan, emakumiak asko, gizonak'e bai e? Tela iten zan, algodonera horreatik zan, tela. Ta harek in zun barriyu hoi, zea jendiantzako ta harek esaten zuen hitz ein in zula gehiena, fabrika hoi, o zea, etxe hoik. Etxe oain zahar-zaharra dao, erdik bota dittue; ta dana bota ingo due. Ijituak eta portugesak bizi da oain han. Ta lehen, danak euskaldunak giñan.  
- Hara!  
- Danak euskaldunak, danak ezautzen gendun, eta beti izaten zian, "Hara! Holako ta holako errittan aitu dira!". Ta leiyo batetik bestea buillaka aitzen zian ijituak baiño okerrago. Eta etxe bakoitzian, ya denok motia giñun.  
- Ta zuena zein zen?  
- Guria, gure aittak zun Felipe arrantzalia.  
- Hara!  
- Bai, esaten ziyoen.  
- Ta zer zan, arrantzan ibiliya zuen aitta?  
- Aittona eo ibili zala esaten zuen, baiño arrantza gehiyena ibaiyan e? Ibaiyan, bai.  
- Ta zuri deitzen al dizue arrantzale?  
- Ez, ez, nei ez. Ya bukatu in zan zeakin.

## 2. Gerrak hezkuntzako planak hankaz gora jarri zituen

- **Erref:** AND-030/005
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:14:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

### Laburpena:

<p>Andoaingo Etxeberrieta auzoa eta Andoain bera nolakoak ziren azaltzen du. Eskola bat bazen Etxeberrietan, maisu batekin ibiltzen ziren denak. Gerra hasi zenean, maisuak alde egin zuen eta fraideetara joan ziren orduan ikastera. Neskek aparte ikasten zuten maistrarekin. Gaztelaniaz ikasten zuten eskolan. Aita nazionalista izateagatik, gerra garaian harrobira bidali zuten; diru gutxi zuten orduan, eta osabak ordaindu zuen Rokek fraideetan jasotako heziketa. Gerra garaian anaia bat hil zitzaion, eta bestea "Batall&oacute;n de Trabajadores"en sartu zuten.</p>

## 3. Bi anaia gerran

- **Erref:** AND-030/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Anaia "Batall&ocute;n de Trabajadores" egon zen Santander aldean. Bi anaiek egin zuten alde etxetik gerra hasi zenean, Rokek gogoan du aitak anaiari esandakoa arma bat etxera ekarri zuen egunean.

**Transkripzioa**

- Eta "batall&ocute;n de trabajadores" hartan eo nun eondu zan zure anaia?  
- Oi! Santanderren'e bai. Gure aitta zanak aitua izan diyot Santanderra're jun zala ta. Gaztiak zian, hemezortzi, hemezazpi urte eo hola ordun; hamasei urtekin alde in zun ta. Ta gero, han handik atea zuenian; delituik ez zun ezer izan mutiko koxkorrak, seitun handikan atea ta soldadu in zan.  
- Ta zu akordatzen al zea nola alde in zuen etxetik?  
- Ni akordatzen naiz seme zaharrena o anai zaharrena behin etorri zan etxea ta hola mahaiyan gaiñian, holako pistola eo "rev&ocute;lver" beltz haundi bat mahaiya gaiñea jarri zun, ta aittak errita eman ziyon. Ta ordun harek izango zittun hogei urte eo hola, hurrungo urtian hil zan ta. Ta esan diyoo "Nik ez diat nahi hemen holako armik e etxian" esan ziyon.  
- Aittak?  
- Bai. Ta gero, hoik sartu zianian, treintaiseisian hoik sartu zianian [...] jun zan ta gero han hil zan.

**4. Janari bila ibili, ostu edo trukatu**

- **Erref:** AND-030/007
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

Fraideetan, 9etan sartzen ziren klasera. Roke, ordea, 7etan jaikitzen zen esne bila joateko. Morokila jaten zuten etxean. Errazionamenduan jasotzen zuten janaria banatu egiten zuten anai-arreben artean: Rokek gauerako gordetzen zuen, arrebak trukatu egiten zuen. Aitak baratzea zeukan, eta hango jeneroa jaten zuten. Eskola bukatutakoan, sagarrak ostera joaten ziren.

**5. Emakumeak fabrikan eta garbitegian**

- **Erref:** AND-030/008
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:21:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

**Laburpena:**

<p>Gaztainak biltzen zituzten, baina ez zegoen denek jateko adina. Emakumeek kotoi-fabrikari egiten zuten lan, eta jai goizetan arropa garbitzera joaten ziren garbitegira baldea buru gainean zutela. Umeei ez zieten uzten hara joaten.</p>

**Transkripzioa**

- Ta gaztaiñikan eta ordun biltzen al zan? Gaztaiñak o marrubik o...?  
- Gaztaiñak? Gaztaiñak bilduko ez zan ba! Bai, baiño gaztaiña're zenbat zeon ba hemen. Jendia gaztaiñak baiño jende gehiyo zan jateko, biltzeko. Zea, ta emakumiak juten zien algodoneran lan ein eta jai goizian, zea, Belkoaiñen, Belkoaiñen, Belkoain mendiya dao. Ta han bota in zuen zea basua, piñuk eta. Ta guk zea jai goiza izaten zan egurreta juteko emakumiak'e. [...] sortak hartu zean, burun, ta zea ordun ez zan butanoik ta labadorik'e ez. Ta uaingo adelantoik ez zian, labaderoa juten zian emakumiak. Han baldia hartu, lanetik atea ta iñularrian igual, baldian hartu ta han garbitzen. Ta gu mutil koskorak o hola arrimatzen bagiñan, "E! Alde hemendikan" esaten ziguen. Ez zuen nahi ikusi nahi zea arropako ezer'e.

**6. Emakumeen lan-baldintzak kotoi-fabrikari**

- **Erref:** AND-030/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:21:03. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

**Laburpena:**

<p>Ura izaten zuten etxean. Emakumeek kotoi-fabrikari lan egin arren, etxeko lanen ardura ere eramaten zuten. Familia zuten emakumeei ordu erdi lehenago uzten zieten ateratzen lanetik. Kotoi-fabrikari pieza osoa egin arte ez zuten jornalik kobratzen. Fabrikak hiru kooperatiba zituen janaria saltzeko, eta langileek dirurik ez zutenean, zorretan uzten zuten erositakoa.</p>

**Transkripzioa**

- Ta urikan eta izaten al zan etxetan?  
- Bai. Ura bagendun, bai.  
- Zenbait baserritan igual ez?  
- A ez, ez. Baserritan ez, baiño kalia bai, kalia ura bazan.  
- Eta emakumiak fabrikari lanian ai ta geo etxea juten zianian, haik arropa garbitzen ta etxia garbitzen ta...?  
- Apaiya iten ta, zean, hor fabrikari uzten zittuen umiak eta zittunai ordu erdi bat lehenao ateatzen uzten ziyoen fabrikatikan. Otordua're asko ezin ingo zuen, bezperan in ta preparatu bihar. Baiña mahaiya preparatu ta ordu erdi lehenao uzten ziyoen ateatzen, pamilya zunai ta. Ta geo atsaldian, berriz harea jun ta gure ama zanak esaten zun zea tela haretan zabilhela pieza osua in bihar, igual ehun metrokua izango zan eta hua bukatu arte jornalik ez omen zun zeatzen, ta hua bukatzen zianian haren baliyua. Ta askotan, zea, ezin bukatu igual ta larunbata etorri ta zea xoxik gabe. Ta klaro, hurrungo, zean, astelenian hartuko zun. Baiño ordun diruik ez zan. Ordun, zian algonoderak zitun hiru denda. Kooperatiba esaten

zitziayon. Bat Etxeberrietan, bestia hemen, Zumean eta bestea Kale Txikin. Ta han liburuba izaten zan. Eta zu juten ziñan ta "bueno, nai ekatzu garbantzua, zea patatas o zeona" ta apuntatu itten zuen. Apuntatu. Liburuba ekartzen zun ta beak apuntatzen zun ta gero diruba hartzen zunian juten ziñan harea ta "'a ver" zenbat zor det?" eta "hainbeste" ta dirutan dana pagatzen zan. Ta hurrena, berriz, ezin pagatu, aillegatu ez ta "bueno, datorren astian pagatuko dizut" eta han bankuba hue zan, han diruik ez zan izaten. Harea jun.

- Hoi, kooperatiba horrek asko lagunduko zun?

- Bai, hoi dana fabrikana zan, dana, dana kooperatibak eta dana zeana fabrika, zeana, Subijanana.

## 7. Aingurasutegi kalearen historia eta bertsoak

- **Erref:** AND-030/011
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

### Laburpena:

<p>Lasarteko Aingurasutegi kalearen historia kontatzen du: lehen itsasontzien aingurak bertan egiten omen ziren. Aingurasutegiri buruzko bertsoak abesten ditu.</p>

## 8. Aitari entzundako bertsoak

- **Erref:** AND-030/012
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:59. **Bukatu:** 00:29:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

### Laburpena:

Aitari entzundako bertsoak abesten ditu, eta haien testuingurua azaltzen du.

## 9. Gerra aurrean jende asko eskean etxez etxe

- **Erref:** AND-030/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

**Laburpena:**

<p>Gerra aurretik jende ugari ibiltzen zen eskean, krisi handia baitzegoen orduan. Eskean zetozenean, errezatu egiten zuten. Ogia eskatzen zuten eskaleek.</p>

**Transkripzioa**

- Garai baten, jende asko ibiltzen al zan eskian o kalia?
- Gerra aurretik bastante e?
- Bai?
- Gerra aurretik bastante. Bai, ordun'e krisisa haundi xamarra zan ta ordun errezatu iten zuen. Lantegia jun ta errezatu iten zuen. Gure aitta zana aittua izan diyot "Mekasuen! Beti zea igual zea hamar ta hamabi egunero egunian. Ta aguazillan txapela jarriko dit atian, aber ikaratu ta alde itten duen!".
- Ta girua bakarra ez igual, jatekua o...?
- Ogiya. Ogi koskorra, han zea bertako ogiya igual, zakubakin etortzen zian eskaliak, zakuba ekartzen zuen ta diruba, diruik ez zeon, ta ogi koskor bat eman, sartu ta beinga! Segi.

**10. Andoingo auzoen izaera eta elkarren arteko ika-mikak**

- **Erref:** AND-030/017
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:31:23. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

**Laburpena:**

Andoingo auzoak aipatzen ditu. Auzoen artean ika-mikak egoten ziren, eta elkarren artean harrika aritzen ziren: Etxeberrietakoak izaten ziren txapeldunak. San Juan sua zenean, beste auzokoen materiala erretzen zuten denbora baino lehenago, ezer gabe gera zitezen; Etxeberrietakoak ziren garai hartako gaiztoenak. Auzo bakoitzak bere izaera zuen.

**11. Batelak Oria ibaian**

- **Erref:** AND-030/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:49. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Arrauna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

<p>Festetan, auzoen arteko pikea egoten zen: batelak izaten ziren orduan, ibai izkin guztia batelez beteta egoten zen... Orduko anekdotak aipatzen ditu: behin batel bateko patroia erori egin zen, beste batzuk tranpa egiten saiatu ziren...</p>

### Transkripzioa

- Ta zeatan'e, festetan'e izaten al zan batzuk bestien kontra eo arraunian eo batelakin eo pelota partiduikan eo bata bestian kontra? Izaten al zen...
- Hemen, hemen bolak gerra bukatu ta gero, orain dala hogei urte eo, batelak izaten zian hemen. Eta barriyuak barriyuak izaten zuen "pikia". Zea, batela ttikik'e lau lagun ta patroiya. Ta ateatzen zian Etxeberrietatik, bestia Zumeatik, bestia Basterotik ta bestia Kale Txikitik. Gero, berriz, hasi zan ya kanpotikan. Ya kategori gehiyo. Ya Tolosatikan ta ya Oriyotikan'e bai ta ya... Ta gero presak zian hemen, presa bakizu zer dan, presara bota zittuen ta ya ura jeitsi egin zan ta oain ez due iten.
- Baiño politta izango zan ikusteko?
- Joder, jende asko etortzen zan e, kanpotikan ta. Hemen ibai ixkin guztiya dana betia.
- Ez al zan izan bakarren batek buelta emateakuan...
- Erori zan Luziano hortxe zana, putzua erori. Zea, bea patroiy zan, ta ez dakit arraunian indar gehiyegi in ta balantza in ta putzua erori ta igeri bazekin ta atera ta han geatu zan.
- Baiño aillatu gabe, buelta emanda, holakoikan?
- A bai, aurretikan aurretikan emanda, bai, bazan, bai, urte batian. Buelta hemendik eman beharrian, aurretik eman ziyola ta. Deskalifikatu in zittula ta.

## 12. Igandetako planak

- **Erref:** AND-030/019
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:36:25. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

<p>Etxeberrietan futbolearen aritzen ziren normalean. Igande goizetan mezara joaten ziren, handik ateratakoan mendira, bazkaldu, kafea hartu, Etxeberrietan futbol-partidua ikusi, zinera joan, musika entzun, eta tabernara joaten ziren kantatzera. Orduan abesten zuten kanta baten zatia abesten du: <em>"Udaberrian abiatu nintzan..."</em>.</p>

## 13. Aitari ikasitako kanta zabaltzen

- **Erref:** AND-030/020
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

### Laburpena:

<p>Aitari ikasitako kanta soldadutzako lagun bati bakarrik erakutsi zion; ordutik lagun hark urtero kantatzen dio abesti hori. Abestu egiten du.</p>

## 14. Mutila uzteagatik zenbait neskari ateratako bertsoak

- **Erref:** AND-030/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

### Laburpena:

<p>Aretxabaletako mutil batek Andoaingo neska bati bertsoak atera zizkion, utzi egin zuelako. Gai beraren inguruko Andres Mitxelenaren bertsoak.</p>

## 15. `Erreguetan´ kanta

- **Erref:** AND-030/024
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:44:49. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

### Laburpena:

<p>`Erreguetan&acute; kanta<strong> </strong>abesten du.</p>

#### Transkripzioa

Min eriturik arkitzen danak  
egin beharko negarra,  
nahiagatikan ezin logratu  
desio nuen izarra.  
Mundu hontatik eramango det  
damutasun bat bakarra:  
zu gabetandik nere bizitza  
hemen igaro beharra.

Hoi, moja jun zitzaion zea. Ta... Lau bertso die ta nik leheno banekixkin,  
baiño oain hoi bakarra gogoratzen zat.

## 16. Animalien inguruko bertsoak

- **Erref:** AND-030/026
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

### Laburpena:

<p>Animalien inguruko bertsoak. </p>

## 17. Andoainen festa ugari

- **Erref:** AND-030/029

- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:52:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

Hernanin festa asko ospatzen omen dira. Andoainen ere festa ugari izaten dira: banan bana aipatzen ditu.

**18. Irrati bakarra eta denak haren inguruan**

- **Erref:** AND-030/030
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:52:54. **Bukatu:** 00:54:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Santa Kruzetako giroa garai batean nolakoa izaten zen azaltzen du: musika, kaleko giroa... Lehen jende gutxik zuen irratia: gizon batek irratia erosi zueneko anekdota kontatzen du; haren irratia entzuteko biltzen ziren denak.</p>

**Transkripzioa**

- Ta Santakruzakin hasten zeate ta...
- Bai.
- Santakruzak garai batian nolakuak zian?
- Bueno, garai batian, neu goatzen naiz, Andoaiñen zan Pepito "churrero", soiñu-jotzaillia zan, eta hue etortzen zan "campeón de Gipuzkoa" ateata zan soiñu-jotzaille politta zan. Eta bezperatikan oain bezela ez zan ta zea Perikoneko sagardotegiyan ta nola lehen esan det, bertotan sagardotegira ta, harea ta juten zian, mutilzarrak eta gizonak; zea e berrogeita hamar urtetik gorakuak eta hua filarmonika hartzen zun ta hemen ibiltzen zian bueltaka kalez kale, zea, hamar-hamabost gizon haren atzetik. Ta gu mutil koskorak'e bai haren atzetik. Ta geo, Santakruz goizian, harek goizian ez; atsaldeko hiruretan "Radio San Sebastián"etik zea jotzen zitun, Santakruzeko martxak eta bi o hiru pieza. Ta hua aitzea danak, radiyua zuenak eta ez zuenak'e bai. Radiyuak'e gutxik zuen. Gu goatzen naiz, etorri ta mutil koskorak giñanian, petrilla zan han kamiyo ixkiñan eta lehen esan deten zea Joxe Manuel "Tatulu" eo nola motia?
- Bai.
- Hua mutilzarra zan eta harek esan emen zun, esaera e, esan omen zun, ez zakila ze in, o andria hartu o radiyua erosi; eta radiyua erosi zun, behintzat. Geo, andria hartu zun e.
- Biyek ordun?
- Bai. Gero, bueno, aurrena radiyua ta guk ez gendun radiyoik eta, ta iñularrian harek jartzen zun fuerte-fuerte radiyua eta guk petrillian danak han jarri ta hango radiyua aitzen eoten giñan.
- Ta orduko programazyuk ze izaten zian, radiyokuak?
- Joe, ez dakit, kantak izango zian, kantak kantak euskaldunak ez, zeudenak kanta erdaldunak. Bai.

## 19. Nesken ohiturak dantzaldietan

- **Erref:** AND-030/032
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:56:33. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

### Laburpena:

Santa Kruzetako giroa sanoagoa zen lehen: musika, bizikleta-itzulia... Neskak ez ziren tabernatara sartzen, gaizki ikusia baitzegoen hori. Neska batzuk kanpoko dantzaldietara joaten ziren, han dantza lotua egin baitzitekeen. Neskak musika bukatu orduko joaten ziren etxera.

## 20. Aguazil bakarria Andoainen, baina errespetu handia zitzaion

- **Erref:** AND-030/033
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 00:59:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Udal langileak

### Laburpena:

<p>Juanito aguazila bakarrik zegoen lehen Andoainen, eta jendeak errespetu handia zion. Aguazilarengandik ihesi ibiltzen zireneko anekdotak kontatzen ditu Rokek.</p>

### Transkripzioa

- Ta serenoa o aguazilla ez al zan ibiltzen ordun, tabernak ixten ta "beinga"?

- Gure, gu gaztiak giñanian, Juanito aguazilla zan bakarrik Andoain guztin. Ta harek oain hogeita hamar eo eongo dira ta harek bakarrik errespeto gehiyo jartzen zun Andoainen, oaingoak baiño. Harek bastoiyakin... Hue ikusten gendunian, gu beti, tiragoma, tiragoma bakizu ze izaten zan? Beti tiragomak eta harri koskorak beti. Txori bat ikusten bagendun, akatu arte eta petrillian eo horrela, kontuatu gabe sartzen bazan, sartu ta "beinga, beinga, tiragomak honea". Sartu ta tiragomak, baiño beti ikusten gendun urrutia ta "hara, bazatorrek Juanito" ta Etxeberrieta. Ta Etxeberrieta zan barriyu bat, aurretik sartu eta atzian beste atia zun. Ta atzetik ateatzen giñan ta guri ez ziguen harrapatzeikan ta hemendik sartu ta hemendik igual ateatzen giñan, ta etxe guztiyek zuen aurretik sartu ta atzetik atera. Ta atzian zituen oillotegik eta baratzak eta... Oain'e bai e?

## 21. Lehengo zabor-bilketa sistema

- **Erref:** AND-030/035
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:00:44. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

<p>Kale-garbitzailea bazegoen lehen: zaldia eta gurdiarekin ibiltzen zen herri guztian. Ekonomia erabili ostean, erregaitik soberan geratzen zen harria biltzen zuen kale-garbitzaileak. Bestelako zabor organikoa oiloentzat izaten zen. Lehen zabor gutxiago sortzen zen. Zabortegia non zegoen azaltzen du.</p>

**Transkripzioa**

- Ordun ze langille gehio izaten zen, izaten al zen kale-garbitzaileik edo?  
- Bai, bai, bai. Zeakin ibiltzen zan, zaldiya ta karruakin ibiltzen zan herri guztin. Ta danok ekonomika izaten gendun ordun, ta jeneralian suba iten zan egurrakin. Diru pixka bat baldin bazan, ikatza're bai. Eta han geatzen zana, zea, ikatza baldin bazan, harriya geatu iten zan erre gabia ta hola ontzi txiki batian, lurrezko ontzi txiki batian hua, zea, kamiyo ixkiña hartu, basura guztiya hua izaten zan. Ta hue etortzen zan, barrenderua karrua ta zaldiyakin ta hua botatzen zun ta han uzten zun berriz ta aurrea. Oso gutxi izaten zan basura, oain aldian. Basura guk'e oillua izaten giñun ta zea patata azalak, (...) hartu ta dana han (...) zan; azan sustarrak eta danak oillueidi. Oain aiña basura. Ta papera're, ez oain aiña paper ta.  
- Gehienez'e, plateran bat hausten baldin bazan eo?  
- Bai, holako holako zean bat. Bai, gaiñontzian basurik batez.  
- Ta zabor hoi dena, basura hoi dena noa botatzen zenuen ordun?  
- Ordun, basura zan Andoaiñen zean, [...]. Andoain, Villabona baiño lehentxeo, Andoaiñen hor soroa zan, kamiyotikan berrehun bat metroa ta han soro zabal bat eta harea botatzen zuen urtetan, harea botatzen zittuen. Ordun ez zan zeik; bakoitzak, herri bakoitzak beria beria zun ta harea bota ta su ematen ziyoen ta han erretzen zien.

**22. Andoainen izandako hazkunde demografikoa**

- **Erref:** AND-030/037
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:02:55. **Bukatu:** 01:05:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Udal langileak

**Laburpena:**

Serenoa ez da beti egon izan Andoainen: bi gizon ziren eta ez zuten lan handirik izaten. Kartzela bazegoen Andoainen lehen. Industria suspertzen hasi zenean, herria hazten hasi zen eta kanpotik jende asko etorri zen. Inguruko herriak ere asko hazi ziren.

**23. Euskara hitz egiteko lotsa**

- **Erref:** AND-030/038

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:05:28. **Bukatu:** 01:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Lexikoa
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

<p>Beti euskaraz hitz egin izan du Rokek. Lehen, euskara gaztelania baino gutxiago zen lotsagatik, baserritar askok ez zieten seme-alabei euskara erakusten. Andoainen "mokolo" hitza erabili izan da.</p>

**Transkripzioa**

- Ta euskerak ordun atzerakadaik izandu al zun? O zuek erderaz o euskeraz o nola manejatzen ziñaten ttikitan?
- Gu euskeraz. Gu, gu gaztediya beti euskeraz aitu gea. Oain'e ni gehiyenian euskeraz aitzen naiz e? Baiño nere lagunak ni bezela dakiye euskeraz, baiño erderaz beti jotzen due.
- Ordun izaten al zan pentsatzen zunikan erdera gehiyo zala edo, euskeraz hitz ein nahi ez o izaten al zan?
- Ba, batez ere basarritarrak.
- A bai?
- Basarritarrak esaten zuen. Nik ezautzen dittut, zea, basarritarrak euskeraz ez dakienak semiak. Amak eta're nolabaitte behintzat erderaz, zeatikan basarritarrak ordun tontuak bezela zian, tontuak, mokoluak Andoaiñen. Andoaiñen mokolua Andoaingo herriya da hoi, o hitza. Hoi da, "por ejemplo", Urnietan da iñozua. Tonto, nola esaten da, tonto. Ta Andoaiñen esaten da mokolua. Ta mokolua izen hoi're galdu in da Andoaiñen. Eta Etxeberrietako tabernatikan bakarra aitzen det, kartetan ai dianak "hi, mokolua!". Andoaiñen hor bakarra aitzen det, hitz hori. Hoi're galdu in da, mokolua. Hoi baten batek leheno aittu izan diyot, baten bati hola aittu mokolua, Donostin eta. "A, hi Andoaingua haiz e!".
- Ta ordun, mokolo batzuk izaten zian ordun?
- Oain'e bai, oain'e bai mokolua.
- Euskeraz baiño erderaz nahiago zuenak?
- Bai, bai; esaten dizut ba, gehiyenak baserritarrak.

**24. Andoaingo kale-saltzaileak**

- **Erref:** AND-030/040
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:08:12. **Bukatu:** 01:11:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

Garai batean, saltzaileak kanpotik etortzen ziren: barkillo-saltzaileak, gozoki-saltzaileak... Janaria Soriako gizon bati erosten zioten eta hari egindako adarjotzea kontatzen du. Arrain-saltzaileak karroarekin ibiltzen ziren herritik eta tratua egiten zen haiekin arrainen prezioa erabakitzeke. Lehen angulak ez zuen gaur egungo balioa.

## 25. Andoaingo harategiak eta jostunak

- **Erref:** AND-030/041
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:11:37. **Bukatu:** 01:13:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

### Laburpena:

Lau edo bost harategi ziren lehen Andoainen. Denda txiki asko zeuden lehen: zakuak erabiltzen zituzten jeneroa eramateko. Jostunak bazeuden herrian; haiekin gertatutako anekdota kontatzen du Rokek.

## 26. Lehen traje berria noiz; `Xenpelar´en bertsoak

- **Erref:** AND-030/042
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:13:47. **Bukatu:** 01:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

### Laburpena:

<p>Lehen bi urtetik behin traje berria egiten zuten. `Xenpelar´en pare bat bertso kantatzen ditu. Gaur egun txaketa ez da erabiltzen.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-04*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com